

Noqua!!!

H A M A B O S K A R A

2002ko apirilaren 19a VII.urtea

Usurbil, 134. zenbakia

A group of about ten children are gathered around a large, dark, cylindrical stone block. They are all leaning forward, holding onto a metal ring that encircles the block, as if they are pulling it together. The children are dressed in casual clothing, including jackets and sweaters. The background is a vibrant, abstract collage of colors and patterns, with a central orange and yellow area that looks like a sunset or a fire. The overall scene is energetic and collaborative.

**Zazpiak bat egingo
dute apirilaren 21ean**

USURBI

GIDAKI-ESKOLA



%20ko deskontua matrikulatu!

MATRIKULA ZAITEZ!

*Kale nagusia, 5
Telf: 943 36 27 93 - 651 70 37 71*

ETXETXO

lorategia



ZABALDU BERRIA!

ZUBIETA, Telf: 943 37 24 05

✕ BASERRIETARAKO:

Abere elikadurarako produktuen horniketa eta nekazari lanerako behar diren produktuak: ongarriak, fitosanitarioak, tresnak, baratzantza, haziak, patata, e.a.

✕ BERTAKO PRODUKTUAK:

Ardoa, txakolina, sagardoa, zainzuriak, piperrak, babarrunak

✕ LORAZANTZA ETA ETXEETARAKO:

Burdindegia, plastikoak, otarrak, txakur, katu eta txori jana



BETIKO "SINDIKATVA" ORAIN BERRITVA, JENERO GEHIAGOREKIN

Ugarte industrialdea, 12 - Telf: 943 36 11 14 - E-mail: alkartasuna@fcae.org

Txerrimunik ordainetan



Zorionak Eider!
Apirilaren 15ean 17 urte egin zituen. Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partez!



Zorionak Ainhoa!
Apirilaren 23an 14 urte egingo dituzu, beraz, besarkada bat etxekoan partez eta egun ona pasa!!!



Aupa Jose!
Ondo ibili urte honetan mexikon, eta gogoratu gu joaterako tekila prestatuta izan behar duzula. Lagunak, Jabi eta zure arreba.



Zorionak Marijose!
Apirilaren 21ean zure urtebetetze eguna dela eta, zorionak! Manoli zure lagunaren partez, muxu handi bat!

Hona hemen edonor zoriontzeko tartea. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota tituluren bat lortu duelako dohainik, bazkide direnek nahiz ez direnek tarte hau erabili dezakete. Ekarri beharrekoa, testua eta argazkia.

Hurrengo alea: maiatzak 3.

Ekartzeko azken eguna: apirilak 26.



Zorionak Korito!
Apirilaren 14ean 10urte egin zituen Koritok. Zorionak eta egun ona pasa! Muxu handi bat etxekoan partez!

Hildakoak

Mariana Lasagabaster Belategi
2002-IV-11
Txokoalde

Jaiotzak

Mario Rodriguez Roman
2002-III-28
San Esteban

Amaiur Caballero Eizagirre
2002-IV-10
Aizperrenea kalea

Carla Sambade Andujar
2002-IV-10
San Esteban

Bai, esan?

- Udala 37 19 51
- Udaltzaingoa 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak 37 01 48
- Anbulategia 36 20 13
- Udarregi ikastola 36 12 16
- Udarregi (Kalezar) 36 45 00
- Agerialde ikastetxea 36 38 95
- Oiarde kiroldegia 37 24 98
- Zumarte 37 15 94
- Etumeta 37 20 01
- Taxi geltokia 36 21 78
- D.Y.A. 46 46 22
- Erizantza 112
- Suhiltzaileak 112
- Larrialdiak 112
- Anbulantziak 112
- Posta Kutxa 36 28 49
- Gure Pakea 37 32 28
- Gure Elkartea 37 17 51
- Arrate egoitza 36 63 40
- Eusko Tren 47 09 76
- Noaua! aldizkaria 36 03 21
- Bake epategia 37 23 36
- Oa farmazia 36 12 17
- Iturrialde farmazia 36 33 95
- Zubietako Herri Batzarra 37 20 77
- Argindarra (Iberduero) 47 09 76

Maiatza

Astel.	Asteaz.	Asteaz.	Osteg.	Ostira.	Larun.	Igand.
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

● Hurrengo alea

Udaltzaingoren ordutegia

Astegunetan

6.00/22.00

Asteburu eta jaiegunetan

7.00/22.00

Gainontzeko orduak telefonoz.

Atea itxita aurkitzen baduzu deitu telefono honetara

943-361112

Noaua! aldizkaria
Bordaberri, 3
Usurbil
noaua.k.e@euskalnet.net

Kexaren bat baduzu, kritikaren bat eskuartean badabilkizu edo eta herriko zerbaitez hitz egin nahi baduzu guk ikamikan toki bat egingo dizuegu.

Eskutitzak izengoiti batekin sinatu daitezke, baina Noaua!n argitara emateko guk zuen izen-abizenak jakitea ezinbestekoa da. Testuak 2000 karaktere baino gutxiago izan beharko ditu.

Eskutitz horiek Noaua! Kultur Elkartearen egoitzara eraman edo postaz bidali besterik ez duzue egin behar.

**Argitaratzailea**

Noaua! Kultur Elkartea
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02
E-mail: noaua.k.e@euskalnet.net
Web orria:
<http://www.jalgi.com/topagunea/noaua>

Kazetarien koordinatzailea

Imanol Ubeda

Kazetariak

Imanol Ubeda, Amagoia Mujika eta
Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea

Agurtzane Solaberrieta

Zuzentzailea

Eneko Harreguy

Kolaboratzaileak

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zaloe Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karnele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbieto, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti.

Bazkidetza

Aitziber Aranberri

Erredakzio Kontseilua:

Imanol Ubeda, Amagoia Mujika,
Garikoitz Udabe, Zaloe Arnaiz eta
Agurtzane Solaberrieta.

Informatika

Pili Lizaso eta Oskar Angulo

Banaketa

Miren Azkonbieta, Txelo Vidal eta
Kerman Errekondo

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale**Lege-Gordailua:** SS-668-96**ISSN:** 1136-6818**Inprimategia:** Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

AZALA

Zazpi herrialdeetako ordezkari bat egingo dute Usurbilen.

**Justizia Palestinarentzat****Jose A. Piñas****Komite Internazionalistak**

Iazko abuztuan Hego Afrikan Xenofobia eta Arrazismoari buruzko Konferentziaren inguruan egin zen foro alternatiboak honako hau baieztatu zuen: "Israelgo Estatu estatu arrazista da eta apartheid politika egiten duena".

Palestinar lurraldeetan osatu den Israelgo estatu justifikatzeko oinarri nagusia ideologia sionista da. Honako hau da erabilitako argudioa: "judutarren herri bat dira eta Palestina judutarren lurraldea izan zen eta hala izaten jarraitzen du". Beraz, Israel judutarren herrizat hartzen da eta ez israeldarrena. Horregatik, Itzulereen Legearek helduz, judutar guztiek Israelen ezartzeko eskubidea dute. Premisa hauetatik abiatuta egiten dira palestinar lurraldeen txikizioak, bertako hiritarren aseritateak... Horrela eman zen 1948an "diaspora palestinarra". Gaur egun, lau milioi dira errefuxiatuak eta Israelen ez die euren etxeetara bueltatzeko eskubiderik errekonozitzen.

Ariel Sharon, 1982an Libanoko Sabra eta Chatiban errefuxiatu palestinarren aurka eginiko sarraskien arduraduna eta egun Israelgo lehen ministroak (Likud alderdi sionistaren eskutik) palestinarren aurka genozidioari ekin dio egun hauetan: herri eta hiri palestinarrek okupatu dituzte militariki, Arafat agintari gorena konfinatu, Jenin eta Balatako errefuxiatu-eremuen aurka egin, etxeak erasotu, 2.000tik gorako atxilotuak torturatu, osasun laguntza ukatu...

Ariel Sharon gudu-kriminal moduan epaitu beharko lukete.

Nazioartean, Israelen AEBen babes ekonomiko eta militarra jaso du bi arrazoi nagusiengatik: EABak Israel aliatutzat jotzen du zonaldea eta herri arabiarren kontrola ziurtatu ahal izateko. Eta bestetik, judutarrek EABen barruan duten indar ekonomiko, alderdi politikoen kanpainen finantzamenduan, esate baterako. Ez da harritzekoa Bush Israel "herri lagun" moduan definitzea.

Bestetik, herri arabiarrek herri palestinarra babesteko dituzten zailtasunak ikustea etsigarria da. Egipto, Jordania eta Arabia Saudiren kasuan AEB taloen bidez neutralizatuak direlako, eta beste batzuetan (Siriaren kasuan) zonaldea kontrolatzeko borrokatzen dutelako.

Baina interes guztien gainetik (geostrategikoak, ekonomikoak, politikoak, militarrik...) herri palestinarrekiko Justizia eta elkartasuna daude. Justizia eta elkartasuna okupatu den herri bat izan dela kontuan hartuz. Estatu Palestinarrean hezurmamitu behar duten baloreak dira. Euren lurraldetatik kanporatuak izan diren 4 milioi errefuxiatuek etxera itzultzeko duten eskubidea errekonozituz, judutar kolonien asentamenduak eraitsiz, zonalde palestinarrean eragina duten diskriminazio politika sistematikoak desagertaraziz...


Dirudienez, Israelgo Gobernuarentzat euren mugek segurtasuna ziurtatzea bi aukera baino ez ditu: herri palestinarrentzat Justizia edota palestinarren garbiketa. Sharonen eta sionismoak palestinarren garbiketaren alde egin dute.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!



Benito Aranburu

Oria Ibaia oso ondo ezagutzen du Benito Araburuk. 70 urte egin baititu alarekin gora eta behera. Kiloa bost durotan ezagutu zuela aitortu digu. Gaur egun egoera bestelakoa da, prezioek gora eta angulen presentzia behera egin duelako.



Aurten ez da anguletara atera. Dena den, ala zain du oraindik noiz bueltatuko den esperoan. Mitxelinen 37 urte lanean egin eta gero, Benitok baserriko lanetan igarotzen ditu eguneko orduak.

Aurten ez zara anguletara atera. Pena al duzu horregatik?

Ez, angularik ez dagoelako. Jateko atera nahi izaten baitugu. Lehen, ordea, asko ateratzen genuen.

Etixerako, baina garai batean saltzeko adina ere bilduko zenuten, ezta?

Bai, laguntza ona izaten zen. 8 urterekin hasi nintzen anguletara joaten, aita zenari laguntzen. Hiru ala erabiltzen genituen orduan.

Dena den, anguletara irten bai baina lanera ere joan beharko zenuen, ezta?

23 urterekin hasi nintzen Mitxelinen lanean. Bizi-kletan joaten 20 urte egin nituen. Baina azken urteetan enpresak autobus bat jarri zuen langileentzat. Guztira 37 urte egin nituen kubiertak eginen. 60 urterekin jubilatatu egin nintzen arte.

Orduetik baserriko lanetan egiten dituzu eguneko orduak. Hala ere, Oria ibaiaren bidezidor guztiak ondo ezagutuko duzu?

Jesus! 71 urtetan pentsa, makina bat buelta

eman ditut. Aitarekin hasi eta gero semeekin jarraitu nuen. Zortzi seme-alaba ditut eta neskekin ere atera izan naiz anguletara.

Ala duen bakarrenetakoa izango zara. Garai batean gehiago izango ziren, ezta?

Beste batzuk ere badira. Lehen 200 bat ala bazebiltzan. Denentzako bazen eta baita sobratu ere! Aginagakoak, San Estebangoak... Oriotik ere asko etortzen ziren. Hemen aginagar gehienak bi edo hiru ala bazituzten. Guk hiru genituen.

Angulak asko jeitsi dira. Kutsadurak ere zerikusirik izango du.

Urarengatik ez da bakarrik. Japonesak aingira asko harrapatzen dute eta orain bat bera ere ez dago hemen. Eta motorrak baldin badabilta hemen aingirarik ez da izango. Gu gazte gineanean 30-40 kilo aingira ateratzen genuen. Aingira handiak, librakoa eta kilokoak ere bai.

Beste garai bateko kontuak dira horiek. Dena den, oraindik alarekin ibiltzeko ohiturarik ba al duzu?

Tarteka ateratzen naiz. Bestaldean terrenoak dauzkagu; sagastiak, intxaurrak... Joan den udan hiru balde sagar bildu eta bizilagunen artean partitzen ibili nintzen.

RAMON BARCENILLA

. Pikor- pintura eta gotele lanak
. Papereztatze-lanak
. Pintura-lanak oro har

Aristitxo, 8-5.a 20170 USURBIL
MOBILA: 629 46 09 66



Kima
MASAJE LEKUA



Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97

SERIGRAFIA
TAnPOGRAFIA

Losu
Ugaldea poligonoa 36 - 2^o Esk
Usurbil - Gipuzkoa

INDUSTRI ETa
IRAGARKI SERIGRAFIA
KAMISETEN INPRIMAKETA

37 19 54

SANTUENEA

Alfontso Vidal



Zinegotzien bisita

Azken kronikan Agustin Esnaolak aipatu bezala, herriko arau subsidiarioak aldatzeko urtea da aurtengoa. Urte hauetan guztietan egin denaz eta egin ez denaz kontatzeko herriko zinegotziak izan ziren gure auzoan, auzotarron iritzia jasotzeko.

Auzotar ugari gerturatu zen orduan aipatu tertulira. Ireki duten eztabaida prozesu honetan herritarrek ere parte hartzea da helburua, iritzia eman eta ekarpenak egiteko. Hori dela eta, beste tertuli bat izango da maiatzaren 7an Zahar Egoitzan, arratsaldeko zazpi tertulietan.

Hiru gai jorratuko dira: batetik, Batasunak kaleratu berri duen

Bake Proposamena aurkeztuko da eta egungo egoera politikoren irakurketa egingo da.

Bestetik ere, lehen aipatu bezala, arau subsidiarioen gaia landuko da; eta, azkenik, auzoko egoeraren errepaso ere egin nahi da. Iritziak elkartrukatu eta auzotarrak eta udalaren arteko harremanak areagotu eta sakondu nahi dira.

Beraz, aukera

ederra dugu gure iritzia emateko. Ea ba jende asko azaltzen den!



URDAIAGA

Alazne Begiristain



Apirila

Iritsi da udaberria, baina Aste Santuan eguraldi zoragarria egin duen arren, azken egunotako eguraldiak ez du urtaro honi dagokion eguraldiarekin zerikusirik. Euskal Herrian eguraldiarekiko lotura sakona, beste inon ageri bada, atsotitz eta errandiru zaharretan, hainbat erretrau dotore horietan datza.

Apirilak berarekin hainbat esaera zahar dakartza, hona hemen horietako batzuk: *Apirilian euria goi ta behean; Apirilian, milla ebi; Apirilean trumoia jotzen badu, berri ona da; Apirilean trumoia, 40 eguneko berdatia; Apirila haizetsuak nekazaria pozten du; Apirila euritsu, maiatza ihitsu, ekaina errautsu,*

orduan da laboraria urgulutsu. Ikusten duzun bezala, asko dira hilabete honi erreferentzia egiten dioten atsotitzak.

Nekazarietako mesede egingo dio euriak, baina sarri beste hainbat gauzetan kalterako ere izan ohi da. Izan ere, egin dituen euri zaparradak direla eta, gure auzora doazen errepide bazterrak ez baitaude oso txukun. Euriaren ondorioz, lur-



jauzi txiki batzuk egon dira eta ubideak ere nahiko narratsak daude.

Eguraldi txarra eta atsotitzak alde batera utziz, auzoko festak izango ditut hizpide oraingo honetan.

Sanestebanak nahiko urrun dauden arren, denbora pixkat bada, jai batzordea biltzen hasi dela. Auzotarrak animatu nahi ditugu auzoko jaietako antolaketa lanak egiten laguntzera. Beraz, laguntzeko prest bazaude, zure ideien bat aportatu nahi baldin baduzu, lasai kontatu batzordeko kideen bati edota zu zeu azaldu jai batzordeko bileretara. Gus-toz hartuko zaitugu.

KALEZAR

Ainara Uribe



Eguneko Zentroa aurrera doa

Eguneko Zentroak uda ostean zabalduko ditu ateak. Obrak martxa onean dihoaz eta laster egoitza eder bat izango dute hirugarren adina-koek.

Udarregi Ikastolaren egoitza izan zenak funtzio berriak izango ditu laster. Jada bertan finkatu dena haur eskola da, beraz, epe laburrean haur nahiz helduen topagune izango da eraikin hau.

Hasiera batean proiektuak 6 plazako gunea aurrikusten bazuen, azkenean 12 izango dira eguneko zentroak eskainiko dituen lekuak. Garai batean Udarregi Ikastolaren egoitza izan zena Eguneko Zentroan

bilakatauko da. Baina ongizate arloan sor daitezkeen bestelako beharrei erantzuteko ere balio izango du.

Gune berri honen inguruan parke bat edo zonalde berde bat eraiki nahi du Udalak. Proiektuan halaxe zehaztu zen eta halaxe egingo da. Izan ere, hilabete honetako udalbatzan lur-eremu horren erosketaz eztabaidatuko da.

Beraz, paraje ederrean eta egoitza txukun batean ederki asko egongo dira Eguneko

Zentrorra hurbiltzen direnak.

Ezin ahaztu Haur Eskolakoak ere hortxe izango direla, beheko solairuan. Oso eremu txikian, beraz, haur jaio berriek eta adinduek bat egingo dute. Bitxia, ezta?



ATXEGALDE

Maria Jesus Urbieta



Iturrian ura badago

Denbora luzez itxoiten egon ondoren, azkenean iritsi da ura auzoko iturrira. Kale-etako espaloiak konpondu behar zirela eta, ura moztu

zuten. Baina urte batzuk igaro dira konponketak egin zirela. Hori dela eta txoko honetan askotan aipatu izan dugu auzoko kronistok iturriak urik gabe jarraitzen zuela.

Baina, oraingo honetan ez gatoz kexuka, eskerrak eman beharrean gara. Izan ere, Aitor, udaletxeko iturgina, egun hauetan hemen ibili baita ura ekar dezan ahaleginean lanean. Orain hor ikusten dira gaztetxoak, kirola egin ondoren,

egarria asetzeko ura edaten. Benetan eskertuko die egindako lana!

Bestalde, Aste Santuko jaiak pasa ostean, berriz ere murgildu gara ohiko lanetan. Eguraldiak ez du asko lagundu. Oso nahastuta ibili dela diote kanpora joan diren usurbildarrek.

Hotza eta euria, izan dira beraz, opor hauetako protagonistak.

Azkenik, azkenaldi honetan etorkin ugari ikusten da gure auzoan. Askotan aurreiritziak izaten baditugu ere eta alperrek direla esaten bada ere, hurbildu diren hauek jator-jator ikusten dira bere zereginetan eta beren lantokietara joaten.



TXOKOALDE

Iñaki Labaka



Txotx garaiari agur

Aste Santua pasa eta dagoeneko joan zaigu ere txotx garaia. Aurten lehenbizikoa euroekin ordaindu behar zena. Iparraldeko sagardoak, beren automobilak ikusita sarritan etortzen direla konturatzen gara, gustura izango ziren, txanponik aldatu beharrik gabe.

Aurten ere auzoan nahiko jende ibili da. Zenbait bazkalondotan nabarmena zen sagardotegia beteta zegoela eta jendea poz-pez ibili dela, izan ere, oihuak eta kantuk nire etxetik entzuten baitziren. A ze indarra duen sagardoak, alajaina!

Bestalde, apirileko lehen larunbatean Erroizpe Elkarte

Errioxatik ekarritako ardo klaretea dastatzeko berrogei pasatxo lagun bildu ziren bertan izandako barrikotean. Jatena nahikoa izan zen; berdelarekin egindako marmitakoa eta saiheskia.

Bazkideak eta beraiekin joan zirenak gau oso alai pasa zuten, lagun artean, giro oso jatorra sortuaz. Berez barrikote hauek horretarako antolatzen dituzte. Azkeneko denen artean ia erabat hustu zuten kupela, ez da harritzekoa, klaretea erraz edaten baita.

Azkenik, kronika hau bukatu baino lehena-

go auzotar bat agurtu nahiko nuke. Zoritxarrez, azken astean auzokide bat joan zaigu gureartetik: Ana Mari, Zutegi Zaharrekoa. Orain dela hilabete bat arte, hor ikusten genuen eguenero bere txakurrekin paseotxo egiten erribera aldean, eta, gero, berriz, heriotza. Goian bego!



KALEBERRI

Eneko Harreguy



Korri eta pasa

Ez dakit inoiz baino gehiago edo gutxiago diren, baina bai asko direla. Askok dira gazte asanbladak antolaturiko areto-futbol txapelketan parte hartu duten taldeak. Adin guztietako jendeak eman du izena; gazte-txoenetatik hasi eta heldueneraino. Batzuk oso helduak! Beraz, kasu honetan eta futbol txapelketari esker, adinari dagozkion mugak hausten ari dira. Eta hauen guztien partaidetza ezinbestekoa da gerorako ere.

Baina ez da adinaren muga bakarrik hautsi. Baita janzkerarena ere. Batzuk txandaletan jokatzeko dute, beste batzuk praka motzetan, eta beste batzuek kantantzilotan! Azken hauen atezainari pijametan

jokatzea soilik geratzen zitzaion. Bestela geratu, asko geratu zuen eta zorionak!

Bestela, bakoitzaren partaidetza, eta bakoitzak eskaintzen duen ikuskizuna beharrezkoak dira: gutxitan haserreak -zergatik ezkutatu-, eta maiz algarak eta lagunartekotasuna. Egurditan tabernan kafea hartzen ondoan izaten dituzun lagunak, koadrilakoak... arerio bihurtzen dira ordubeterako. Eta, aldiz, hizgai datozen asteetarako.

Atsegin dut, aspaldidanik, lehiaketa honek herrian sortzen duen giroa, kaxkoari ematen dion bizitasuna. Nolabait esateko alkoholik gabeko juerga bat da. Ikaragarri ondo pasarazten zaituena, eta era berean, oihu

handirik atera gabe aldame-nekoarekin hitz geiteko parada (ez geldiketa) ematen dizuna. Ezberdina. Norberak aukera beza gustuko zaiona. Nik, biak.

Oraingoz primeran doa, et halaxe joate gustatuko litzaidake. Horregatik, txapelketa honek duen alderdirik zailenetako batean pausatu eta azpimarratu nahi dut, epaile lanak egitea dagokion taldeari, mesedez, ardura izan dezala eta bete ditzala arauak. Eta ez antolatzaileengatik soilik, izena eman dugun talde guztiei errespetoa zor diegulako baino.

Ikuskizun gozagarriak dasta ditzagula denok denon artean eta... bat, bi, hiru... ieup!!

AGINAGA

Maria Angeles Arruti



Helduen irteerak

Udaberriak badu bere poztasuna, bestela galdetu gure erretiratuei. Izan ere, hasi baitira dagoeneko urteroko irtenaldiak egiten.

Hilaren 6an Korellara joan ziren, Nafarroa aldera. Goizeko 8:30ak aldera irten ziren. Bidean gosalduek eta, azkenik, Korellako jatetxe batean bapoz bazkaldu omen zuten. Arratseko 20:30ak aldera etxeratu ziren, guztiak oso gustora.

Datorren asterako berriz ere kanpora joatekoak dira, oraingo

honetan, ordea, Benidorm aldera. Hamar eguneko bidaia programatu dute gure erretiratuek; ez da plan txarra, ezta?

Bertako hondartzez gozatu,



Mediterraneo itsasoan bainu ederrak hartu eta gauetan hoteleko dantzaldietan goxogoxo dantzatu.

Ea ba eguraldiak laguntzen dien, izan ere, azken aste hauetan ez baita giro izan inguru horretan. Itzultzen direnean, kontatuko dizuet, xehetasun guztiekin, bidai honen inguruko kontutxoak.

Animo helduek, hori baita bizimodua! Saiatu ahalik eta ondoen pasatzen, baina utzi zerbait guri garaia helitzen zaigunerako, ni ere gustora ibiliko naiz eta.

ZUBIETA

Olatz De Miguel



Bertso-afaria Araetan

Askotan entzuten ditugu hiri handietan hutsik dauden etxeen kopuru edota portzentaiak, baina inoiz ohartu al zarete Zubietan bertan daudenez? Une batez pentsatzen jarri eta ziur dozena erdia erraz aterako dituzuela. Agian ez da kopurua gehien azpimarratze-

koa, etxe hauen baldintzak baikiz; etxe handiak, villa itxurakoa, eta beren lehioak urtearen 365 egunetarik oso gutxietan zabalitzen dituztenak. Behinola jabeek Zubietan gustatu, etxea eraiki, eta asteburu edo oporretako egonleku izan behar zutenak hutsik geraturiko etxe bilakatu dira. Zer pentsatua ematen du.

Bestetik, badirudi Zubietan bizi garenok ezin izango dugula bertatik atera denboraldi batez obraren batetik igarogabe, izan ere lehendik bihurtu-

ne zabalitzeekin gutxi ez Lasarte aldera joateko eta orain Santu Ene aldera ere kamioiak eta obrei dagozkien seinaleak aurkituko ditugu. Honi gainera hipodromo aldean egiten ari diren lanak gehitu behar.

Azkenik, oroitarazi apirilaren 27an Araeta Sagardotegian izango den Bertso-afaria. Zubietako Herri Batzarrak, Jai Batzordeak, Pilota Elkarteak eta Guraso Elkarteak antolatutako, 21 euroren truke afari eder batez gain Joxe Agirre eta Joxe Lizasok eskeinitako bertsoez gozatzeko aukera paregabea izango duzue bertara gerturatzen zaretenok.

Beraz, animatu!



Erregistroa beheko solairuan egongo da aurrerantzean

Udalaren barne-antolaketa aurrera doa. Bertako funtzionamendua zuzendu asmoz, hainbat aldaketa aurrikusi dira. Horietako bat erregistroari dagokio. Aurrerantzean, beheko solairuan topatuko dugu zerbitzu hau.

Orain arte, lehen solairuan zegoen jendaurreko lehiatila. Baina Gizarte Zerbitzuak Txaramutoko egoitzara pasa direnetik, beheko solairuan gela bat libre geratu da. Hortxe kokatuko da erregistroa. Hau da, udaltzaingoaren bulegoaren aldamenean.

Beraz, herritarrei zuzenduriko lehiatila beheran egongo da. Lanak oso aurreratuta daude eta maiztzean bertan funtzio-



Harrera hemen egingo zaigu aurrerantzean.

namenduan izango da erregistroaren egoitza berria.

Udaletxeko departamentuen mugimendua ez da hor amaituko. Izan ere, erregistroaren egungo lekua kontuhartzailerak beteko baitu.

► Hilaren 20an amaituko da lau langile kontratatzeke epea

Udalak lau langile kontratatzeke deialdia luzatu berri du: festetarako bi peoi, lorazain laguntzaile bat eta elektrikari laguntzaile bat. Kontratua behin behinekoa izango da, lau hilabetekoa hain zuzen.

Langileen izendapenak opo-saketa bidez egingo dira. Elektrikari laguntzaile lanposturako elektrikari titulua eta B-1 gida baimena eskatzen dira. Xehetasun gehiago oinarrietan topatuko dituzue, Udaletxeko idazkaritzan. Hala nola, interesatuak dauden guztiak bertara hurbildu daitezke.

Eskaerak aurkezteko azken eguna apirilaren 20a izango da, eguerdiko ordubatean.

Udaletxeko sarrera egokitzen

Aurrekontuetan jasota geratu zen moduan, Udaletxeko sarbideak eraberritu egingo dira. Ezinduentzako egokitu nahi da sarrera nagusia. Ranpa bat ipiniko da udaletxerako sarbidea arazo fisikoak dituztenei erraztu asmoz. Era honetan, indarrean dagoen araudiaren arabera erregularizatuko da aipatu sarbidea.

Obren aurrekontua, esan bezala, onartuta dago eta baita lan horien esleipena ere.

Berrikuntza hori laster ikusiko



Eskubiko leihoa da ipini berri dena.

dugu. Dagoeneko agerian dena da udaletxeko sarrerako leiho ikustezina. Orain gutxi ipini da udaltzaingoak sartu-ateren jarraipena behar bezala egin ahal izateko.

► 2002ko telefono-listina banatzen hasi dira

Telefono-listin berria kalean da. UTS enpresa hernaniarra arduratzen da telefono-listinaren argitarapenez. Honakoan, atal jakin batzuk bereiztu dira: ileapaindegi, merkataria eta tabernarien gidak. Aurrekoetan bezalaxe, telefono intergarrien zerrenda bat osatu da eta Zubietako herritarren telefono zenbakiak bereiztuta ageri dira. Nahi adina telefono apuntatzeko tarte bat ere bada listinaren amaieran.

JUANTXO
burdindegia
kale nagusia 10 Usurbil
37 00 08

LATAILLADE
ITURGINTZA GAS ETA BEROGINTZA
INSTALAKUNTZAK

ARIZTITXO KALEA, 8 BEHERA
20170 USURBIL

TLF: (943) 36 26 35- 36 33 48
Mobila: 609 888021

Kale Nagusia 10 Usurbil
Tlf. 943 37 33 48
943 37 09 11

LABE-GOXO
burdindegia

Ura, estolderia eta zaborra ordaintzeko epeak finkatu dira

Udalak zerga ezberdinen egutegia osatu berri du. Honakoan, ura, zaborra eta estolderiaren zergak ordaintzeko epeak zehazten ditugu. Beraz, aldeztuak badakizu 2002 urtean noiz kobratuko zaizun aipaturiko zerga.

Ura, zaborra eta estolderiaren errodetako helbideratutako agiriak aurrez aipaturiko epearen aurreneko egunean kobratuko lirateke.

Errolda fiskalek biltzen dituzten agiriak, likidazioak ez direnez, agiriak kolektiboki jakinaraziko dira Gipuzkoako aldzakari ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan epea irakitzeko den egunean. Udalak agiriak zergadunaren helbide fiskalera bidaliko ditu borondatezko epea irekitzen den egunean domizillatu gabe dauden kasuan, komunikazio gisa.

Domiziliatutako kasuetan aurrezki-kutxek edo bankuek bidaliko dituzte ordainagiriak zergadunaren etxera.

Obra baimenaren zergak, jarduera irekiera zerga, ur hartunea, saneamendua.... Gobernu batzordeak hartutako erabakia-ekin batera dagokion kitapen edo likidazioa jakinaraziko da zergadunaren helbide fiskalera, bertan adierazten den epean ordainketa egin dezan interesatuak.

Adierazitako epe hori bukatu ondoren eta zergadunak zerga ordaindu ez duen kasuan premiamendu bidezko jardubideari



Hiru hilabetez behin ordaintzen da ura, estolderia eta zaborraren erreziboa.

ekingo zaio besterik gabe, ordaindu ez diren kuotek %20ko gainkargua, berandutza interesak eta dagozkion gastuak hartu beharko dituztelarik bere gain.

ZERGEN EGUTEGIA

4. HIRUHILABETEA (2001)

2002. urteko otsailaren 1etik martxoaren 15era bitartean.

1. HIRUHILABETEA (2002)

Ekainaren 1etik uztailaren 15era.

2. HIRUHILABETEA (2002)

Irailaren 1etik urriaren 15era bitartean.

3. HIRUHILABETEA (2002)

Azaroaren 1etik abenduaren 15era bitartean.

Hilaren 30ean ohiko udalbatza

Hilabete honetan, besteak beste, honako gai hauek aztertuko dira ohiko udalbatza. Batetik, Artzabalgo proiektuaren ezinduei zuzenduriko babes ofizialeko etxeen esleipena bideratuko da. Bestetik, Kalezarren lur-erosketa bat egin nahi du Udalak. Eguneko Zentroaren ondoko lur eremu hau zonalde berdean bilakatuko da. Txaramutoko Urbanizazioa ere bere gain hartzeko asmoa du Udalak eta erabaki hau ere aztertuko da.

Osinaldeko sarrera egokituko da

Euskal Bizikleta ekainaren lehen asteburuan iritsiko da gure herrira. Etapa bat Atxega Jauregiaren parean amaituko da. Oriotik barrena iritsiko da tropela eta bihurtzea itxia denez, udalak industrialde horretarako sarrera egokitzeko erabaki du. Antolatzaileen aholkuei jarraituz hartu du erabaki hau udalak. Laster hasiko dira obrak eta inbertsio honi esker gune horren sarrera-irteerak hobetuko dira.



Oriotik barrena iritsiko da Euskal Bizikleta Osinaldera.



MAHUKA

Gizon eta emakumezkoen modako arropa guztia hemen aurkituko duzue

Udaberriko moda berria zuretzat!

Etxebeste kalea, 3- tlf. 943 36 11 06

Iturgintza - Gasa - Berokuntza

J. Orbegozo




Bizkarra 1, 1.esk.

☎ 37 29 37 - 36 59 26

Alderdi sozialistaren zuzendaritzan sartu da Amaia Goiaran, PSE-EEko zinegotzia

Alderdi sozialistaren azken kongresuan aldaketa dexente eman dira. Patxi Lopezek Nicolas Redondo Terrerosen lekukoa hartu du. Eta zuzendaritza berrirako Amaia Goiaran deitu du, Usurbilgo zinegotzia. Aitzakia horrekin, gaur egun bizi dugu egoeraz galdezka hurbildu ginen Donostiara, Amaiak duen bulegora.

Zuzendaritza berrian ez omen dira sentsibilitate guztiak uztartu.

Hori ez da horrela. Sozialismo Berriko ordezkari bat sartu da zuzendaritzan, Izaskun Gomez. Gema Zabaletaren zerrendan zihuan. Carlos Totorikaren zerrendakoek, ordea, beste irizpide batzuk zituzten. Irabaziko zutelakoan zeuden baina galdu ostean ez zen akordioa posible izan. Ez da haserrealdirik izan, Patxi Lopezek eta Carlos Totorikak biltzen jarraitzen dute.

Dena den, Madrilen Patxi Lopez ez zaio harrera beroa egin, ezta?

Patxi Lopezen ildoak bestelakoa baita. Lehengoan Jose Luis Zapaterok Euskadiko zuzendaritza pakean uzteko eskaera egiten zuen.

Donostiako gobernu-hitzarrena apurtu egin delako-edo, oso haserre daude Madrilan. Baina ezinezkoa zen PPrekin jarraitzea.

Kongresuaz ari garela, bezperan ETAk Orioko zinegotzia hil zuen.

Nik Juan Priede asko maite nuen. Lagun ona nuen eta askotan elkarrekin egoten ginen, egoera antzekoa bizi genuelako. Oso gizon irekia zen, sindikalista eta ezkertiarra.

Zeintzuk dira zure ustez gaur



Patxi Lopezen eskutik sartu da PSEren organu gorenean.

egungo egoera politikoa normalizatzeko ardatz nagusiak.

Lehenik eta behin, ETAk erahiltzeari utzi behar dio. Horik aurrera, hainbat politikaririk hodeietatik jeitsi beharko luke intransigentzia handia dagoelako. Bi postura nagusi daude: batetik, gobernu zentrala; batzuetan intransigenteegia dela uste dut. Eta bestetik, ETArekin jarrera dago. Mahai batean eseri eta hitz egiten hasi beharko genuke. Denok gure ideiak defenditzeko eskubidea izatea litzateke egoera ideala.

Elkarrizketa aipatu duzu baina Batasuna legez kanpo uzteko asmoa, ordea, sendoa dirudi.

Batasunak duen jarrerarekin oso zaila da elkarrizketa. Illegalizazioari dagokionez, 50 pertsonen eskuetan alderdi politiko bat legez kanpo uzteko aukera uztea oso arriskutsua iruditzen zait.

Dena den, atxiloketak izan direnean batzutan Batasunako zerrendetan azaldukoak egon izan dira. Orduan gure-

tzat ez da harriarria izango, baina kanpoan jende askorentzat txundigarria da. Alderdiak legez kanpo uztea ez zait egoeria iruditzen, baina argumentuak eta indizioak baldin badaude legeak esan beharko du kasu horretan zer egin behar den.

Zinegotzia zarenetik bizkartzainekin zabilta. Horrek zure jardura politikoa zailduko du, ezta?

Lehenik eta behin, oso konplikatu da bizitzea. 24 orduetan gutxienez bi pertsona ditut gainean. Batzutan lau eta bost autoen babesa ere izaten dut.

Asko gara bizkartzainekin gabiltzanak: epaileak, politikak, kazetariak... ez du zentzurik. Logikoena bakoitzak bere ideiak defenditzeko aukera izatea litzateke. Hitzarekin eta zilegizko ekimenekin dena defendatu daiteke. Gauza batzuetan noizbait ados egon gaitzke, baina gaur egun gauzak dauden bezala ezinezkoa da.

“Teknikariei esker ondo jarraitzen dut udal-funtzionamendua”

PSEko zuzendaritzako kide berria da baina horregatik ez du zinegotzi postua uzteko asmorik. Azken boladan -arazo pertsonalak medio-, udalbatzetan parte hartu ezinik ibili bada ere, bertako kontuak gertutik jarraitzen dituela aitortu digu.

Zaila egiten al zaizu zinegotzi jarduera betetzea?

Zaila da baina udal-tertxeko langileei esker nahiko ondo jarraitzen dut udal funtzionamendua. Gizarte Zerbitzu, Ogasun eta Idazkaritzatik asko laguntzen



naute eta pazientzia handia dute nirekin. Udalbatzarekin dudak harremana, ordea, txarra da. Hasieran egoera bestelakoa bazen ere.

Baina udalarekiko haustura Froilan Elexperen heriotzarekin eman zen. Froilan gertukoa zen, Usurbil eta Lasarte-Oriako gaiak ematen zituelako. El Salvadorren ere egon zen kanpaina batean Usurbilgo udaletxeko hainbat zinegotziarekin. Bere heriotza gaitzestea eskatu nion udalbatzari eta agiri gogor bat irakurri nuen. Onartzen dut nire komunikatua gogorra izan zela baina une horretan hori nuen nire barrenean.

Imagina ezazu, udalbatzaz udalbatza presoen aldeko babesak entzun behar izatea, beste aldean ere hainbat injustizia daudenean. Guri pentsatzeagatik garbitzen gaituzte.

Baina badira, esate baterako, atxilotuak eta espetxeratuak izan direnak eta gero kargurik gabe aterata direnak.

Zoritxarrez hori gertatu da eta ni naiz hori gaitzesten lehena. Larria da, kartzelan errurik gabe 8-10 hilabete egitea. Baina gero aterata egiten da. Dispertsioa ere oso gaizki dago. Baina Euskadin ez dugu nahikoa lekurik. Hala eta guztiz ere, urrutiko espetxe batera joan eta agian bost minututan baino ez duzu ikusiko preso dagoena. Baina nik hilerrietara loreak eramatean urte asko daramazkit.

Azken boladan ez zaitugu plenoetan ikusi.

Bajan izan naiz istripu bat izan nuelako. Ekainean hanka apurtu nuen eta erreperatu nintzen beste arazo

bat izan nuen. Kotxe-istripu batean zauritutakoa laguntzera joan eta kamilakoek sahietsi batean edema bat eragin zidaten. Alta eman didatenetik, ordea, joaten jarraitu dut. Hala ere, udalbatza guztietako informazioa jasotzen dut eta edozein zalantza izan ezker teknikari edo arduradunaren gainean izaten naiz.

Usurbilgo martxa nola ikusten duzu?

Gauzak egiten dira, proiektu asko jarri dira martxan. Herri txikia da biztanle kopuru aldetik, baina oso lurralde zabalekoa da. Industria asko eta ekonomia saneatua du. Hori abantaila handia da. Proiektuak martxan jartzeko baldintzak ematen dira eta gauza politak egin daitezke. Airean geratu da sagardoaren museoa, adibidez. Honekin batera, Sagardoaren Ikerketa Zentro bat egingo nuke nik. Erasmus bidez, sagarra eta sagarrondoaren ikerketa sustatzeko gunea ere aurrikusi daiteke inbertsio horretan.

EEn hasi eta orain PSEko zuzendaritzako kide da

Euskadiko Ezkerra alderditik eman zuen PSE-EErako saltoa. Euskadiko Ezkerrako militantea izan zen baina batzuk Euskal Ezkerra pasa ziren eta beste batzuk PSE alderdira pasa ziren.

Politikarako jauzia, ordea, duela gutxi eman du. Orain arte Gurutze Gorriako kide izan da eta horregatik ezin zuen politikoki kargurik bete. Lasarte-Oriako Gurutze Gorriako lehendakari izatera iritsi zen. 1999an dimisioa aurkeztu zuen Usurbilgo herri hauteskundeetara aurkeztu ahal izateko.

Beraz, politikan bete duen lehen kargu publikoa zinegotzi lana izan da. Gaur egun, PSE-EEko zuzendaritza berrian dago Amaia Goiaran.

Alderdi sozialistaren barruan hainbat komisiotan aritu da eta bertan ezagutu zuen Patxi Lopez alderdikidea.

Martxoan Donostiako Kursalean egindako Kongresuan bertan proposatu zioten zuzendaritzako kide izatea. Erronkak gustuko dituzte, baiezkoa eman zuen. 19 kidek osatzen dute zuzendaritza berria, “lehenengoz emakumezkoak nagusi gara” esan digu Amaia Goiaranek. PSEko zinegotziari kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Idazkaritza egokitu zaio zuzendaritza berri horretan.

Errenta aitorpena, urteroko buruhaustea

Iritsi da errenta aitorpena egiteko unea. Batzuk gustura egingo dute, iazko jardunaldian ordaindutakoa berriro jasotzeko gogoz. Beste batzuk, ordea, dirua itzuli beharrean izango dira. Eta horretan Ogasun Sailak ez du barkatzen.

Ogasun bulegoak martxan dira honezkerok. Usurbildarrok Donostiara jo beharko dugu, Antso Jakituna kalean dagoen bulegoetara. Lehen aldiz, eurotan egingo da errenta aitorpena. Beraz, sorpresak ekiditeko, adi ibili beharko dute bai zergadunek eta baita ogasuneko langileak ere.

Era mekanizatuan egiteak dituen abantailak

Jakingo duzuen moduan, 2001eko jarduerari dagokion aitorpena egiteko aukera ezberdinak daude: mekanizatua (ogasun bulegora joan



Donostiako Antso Jakituna kalean dagoen bulegora jo behar dugu aitorpena egitera.

behar da), internet bidez (www.gipuzkoa.net/ogasuna/renta/2001), diskete bidez edota inprimaki bidez.

Era mekanizatuan egiten duenak, hau da, ogasun bulegoan aitorpena egiten duenak abantaila dauka. Izan ere, kobratzea tokatzen zaionari, aitorpena egin eta bi egunetara dirua itzuli egiten baitzaio.

Errenta aitorpena Usurbilen

Errenta aitorpen kopurua 2000an	2.168 pertsona
Aitorpen mekanizatuak	%44,9
Aitorpen arruntak	%44,2
Kuota osoaren esleipena	
eliza	%0,9
beste gizarte xedeak	%35,0
Zehaztu gabea	%29,2

▶ Aitorpena, bai, baina nola egin?

Non?

Donostiako Ogasun Bulegoan, Antso Jakituna, 9.

Noiz arte?

Apirilaren 8tik ekainaren 25a bitarte. Ordua hartzeko epea ekainaren 20an amaituko da.

Ordutegia

Astehenetik larunbatera, 8:00etatik 14:30era. Zergadunek 13:45ekoa da eskatu dezaketzen azken txanda.

Txanda hartzeko

Aurrez hartu behar da txanda 943 311 888 zenbakira deituaz edo www.gipuzkoa.net/ogasuna/renta/2001 web orrian.

Eraman beharrekoak

- Nortasun Agiri Nazionala.
- 10-T diru-sarreraren agiria.
- Bestelako diru-sarreraren edo murrizketen (dedukzioen) agiriak.

▶ 2000. urteko estatistikak


2000. urteko datu orokorrak oso esanguratsuak dira. Aitorpen mekanizatua egin zutenen (Ogasun bulegora joan zirenen) %83,8ri dirua itzuli zitzaion. %16,2k dirua ordaindu behar izan zuen eta %0,5eri berdinketa atera zitzaion.

Itzuli zen dirua, bataz bestekoa, 862 euro izan zen. Ordaindu beharrekoa, berriz, 612,2 euro.

**BORDATXO
EDARITEGIA**

PINTXO BEREZIAK

Aritzeta, 2 Tel.: 943 37 10 42



Urtinea

Loreak - Lore landareak

Lore sortak - Koroak

San Esteban
Tlf.: 943 36 22 55

**MIKEL
IZAGIRRE**

ELEKTRIZITATEA

Goiz Argi etxea, 37
Kalezar
Telf: 943 36 50 95
Mobila: 609068111

Santixabeletako egitaraua aurrera doa

Usurbilgo Udaleko Jai Batzordea hasi da Santixabelak antolatzen. Egitarauaren diseinu lanak esleitze-ko Jai Batzordeak lehiaketa bat antolatu du. Lanak maiatzaren 14a baino lehen aurkeztu beharko dira.

Saria honetara norbanakoak zein taldeak aurkez daitezke. Taldean aurkeztuz gero, taldeki-de bat lanaren arduradun gisa azalduko da. Sari honetan parte hartzeko derrigorrezkoa da usurbildarra izatea. Nahi adina lan aurkez daitezke.

Saria irabazten duenak, 300 euroko (50.000 pta) saria jasoko du. Hori bai, lana maiatzaren 14a baino lehenago Usurbilgo Udaleko Kultura eta Euskara Zerbitzura eraman behar da.

Egitarauaren diseinua egiteko, egitarauaren testua Udaleko Kultura eta Euskara Zerbitzuan jaso behar da, eta testu horretan oinarrituta egingo da disei-

nua. Jaietako egitaraua elebiduna izango da.

Lana zuzenean inprentara eramateko formatoan ekarri behar da: TIFF formatoan, 300eko erresoluzioan eta kuatrikomian. Diseinua egiterakoan, kontuan izan behar da, argitalpenak, Udalak horretarako duen aurrekontura egokitu behar duela.

Proiektua paper formatoan eta CDan, bietara, aurkeztu behar da. Lan bakoitzaren paperezko 4 kopia ekarri behar dira. Diseinu proposamenaren lau kopia eta CDa bera gutunazal itxi batean sartu eta izengoiti bat jarri behar zaio.

Beste gutunazal itxi batean izengoiti bera jarri eta barruan egilearen datuak idatziko dira: izen-abizenak, helbidea, eta telefono zenbakia.

Epaimahaia Usurbilgo Jai Batzordeak berak osatuko du. Aurkeztutako lanek behar beste-ko kalitatearik ez dutela, saria eman gabe gera liteke.

Batasunak hainbat tertulia antolatu ditu auzo guztietan

Batasuna alderdiak gai Bezberdinak aztertu nahi ditu usurbildarrekin batera. Hiru izango dira tertulietako hizpide nagusiak: konponbide demokratikoa eta egungo egoera politikoa, arau subsidiarioak eta auzoetako egoera.

Honen guztiaren inguruan eztabaida zabala piztu asmoz, auzo ezberdinetara joko du Batasunak. Guztira sei izango dira egingo diren tertuliak:

Apirilak 29:

Txokoladeko Akerra gaztetxean, 19:30etan.

Maiatzak 2:

Aginagako sozietatean, 19:30etan.

Maiatzak 3:

Zubietako Alamandegin, 19:30etan.

Maiatzak 6:

Kalezarren, Udarregi Ikastolan, 19:30etan

Maiatzak 7:

Santueneako Zaharren Egoitzan, 19:30etan.

Maiatzak 9:

Kaleberriko Udarregi Zaharretan, 19:30etan.

► Eskola-agiria lortzeko deialdia zabaldu berri da

Eskola-agiria lortzeko heldutasun-probetarako deia jasotzen du martxoaren 13ko buletinak. 2001eko abenduaren 31 baino lehen hamasei urte beteta izanik eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan matrikulatuta ez daudenek parte hartu ahal izango dute proba hauetan. Beraz, eskola-agiria eskuratu nahi dutenek 2002ko apirilaren 2tik 30era bitartean eman beharko dute izena Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko lurralde ordezkaritzan.

► Lasarte-Usurbil Institutuaren oharra

Lasarte-Usurbil Institutuak adituzera eman duenez, 2000. urtean batxilerra egin zuten ikasleek eskura dituzte euren tituluak. Agiria eskatu zutenek lehenbailehen jasotzera pasa daitezela eskatu du Institutuak.

► Erle Eguna ez da apirilaren 28an izango.

Apirilaren 28an Erle Eguna ospatu behar bazen ere, **azaroaren 10a** arte atzeratu da. Antolatzailleek adierazi dutenez, "Azaroan egingo da Erle Eguna. Usurbilen Euskal Herriko Ezti Lehiaketa antolatuko da, eta ez orain arte bezala soilik Gipuzkoako Txapelketa". Gainera, azaroan urteko ezti lehiatu eta dastatzeko aukera izango da. Izan ere, urrian amaitzen baita ezti egiteko epea. Era honetara, eginberria eta kalitate handiko ezti egongo da dastagai, eta ez orain arte bezala aurreko urteko ezti. Beraz, hartu kontutan!

Has dadila zazpi herrialdeen arteko festa

Hemen da aspaldi iragarri genuen deialdia, zazpi herrialdeak batu-ko dituen festa. Aitzaga Kultur Elkartea eta Nafartarren Lagunen ekimenez, euskaldunon arteko elkar ezagutza sustatu nahi da apirilaren 21erako iragarri den deialdian. Bide batez, herrialde bakoitzeko ohituren berri emango zaigu. "Elkartasuna... etorkizuna" lemapean, herrialde guztien arteko harremanak sendotu nahi baitira.

Egun handia iristea baino ez da falta. Eguzkia ere gustuko gonbidatua litzatekeela ezin

uka. Beraz, eguraldiak ere bat egiten badu, arrakasta ziurtatuta dago. Dena prest dagoela esan daiteke. Antolatzaileek 300 bat lagun espero dituzte. Hala ere, estimazio bat baino ez da. Hauxe baita irizpide honekin antolatzen den lehen festa. Aurrekaririk ez dagoenez, jendearen erantzuna ikusteko dago.

Bazkarirako txartelak salgai dira oraindik

Oraindik eskura daude zikirojanerako txartelak. 15 eurotan topatuko dituzue ostirala bitartean Aitzagan, Bentan eta Txi-



Ea plazan topatu genuen alaitasuna errepikatzen den festa honetan.

ribogan. Partehartzeko asmorik baduzu, ez utzi azken ordu-rako eta ahalik eta azkarren eskura ezazu.

Ikusi behar ekitaldi honek

Eta partehartzaileek zer diote?

Dominika Agergarai, Zuberoa

Urdiñarbetik iritsiko dira Zuberoako ordezkariak. Dominika Agergarai izango da horietako bat eta bat egiten du antolatzaileen helburuekin: "beharrezkoak ikusten ditut era honetako ekimenak, batez ere gure artean elkar ezagutu ahal izateko".

Beste hainbat arlotan bezalaxe, kulturaren bidetik elkar ezagutza sustatzea funtsezkoa dela uste du Dominika Agergarai.



Betti Bidart, Behe Nafarroa

Betti Bidartek ere begionez jaso zuen gonbitea. Baigorriko lagun hauek Nafarroa Egunean murgilduta daude burubelarri baina apirilaren 21ean ez dute hutsik egingo.

Bidarten ustez, jai honek garrantzia handia du: "ez dugu elkarren berri. Ezezagutza hori gairatu egin behar da", aitortu digu Baigorriko herritar honek. Zazpi herrialdeen arteko harremanak normalizatzeko jai aproposa dela gaineratu digu.



Josu Bikandi, Bizkaia

Sustraiak elkarte-ko kide, azken 35 urteak ikastolen alde eta euskararen aldeko ekimen ugari antolatu ditu beste hainbat lagunekin batera. Josu Bikandi eguna noiz iritsiko zain dago: "idea oso polita da. Alaitasunean eta anaitasunean egun polita igarotzeko festa izango dela uste dut".

Harremanak estutzeko baliozgarria izan daiteke. Basauriko Josu Bikandi eta Sustraiak kultur elkarteko kideak, behintzat, hala uste dute.



Usurbil Autoak, S. C. L. Zerbitzu ofiziala

Zumartegi Poligonoa
Aitezarra kalea, 1
20170 USURBIL

Tlf: 943 36 10 79
Faxa: 943 36 62 92



HERRIKO TABERNA

Astebukaeretan bokatak, plater konbinatuak, pintxo beroak...

Telf. 943 36 02 17

Euskal presoak etxera!



jarraipenik izango duen ala ez. Iñaki Agirresarobe eta Lontxo Zubiria antolatzaile lanetan ari dira eta ez dute etorkizunean jai honen jarraikotasuna baztertzen. Hala ere, bigarren mailako kezka da hori. 21erako iragarri dena ahalik eta ondoen osatu nahi dute. Eta ahalegin guztiak horretara bideratu dituzte. Eta gero gerokoak.

Ez-jakintasuna gainditu eta elkar ezagutza sustatu nahian

Euskal Herria zazpi herrialdez osatzen dela ikasi dugu, baina ezagutzen al ditugu herrialde bakoitzeko ohiturak? Eta kultur espresioak? Herrialde bakoitzak duen nortasunaren berri ba al dugu? Hori guztia argitu dezakegu apirilaren 21ean egingo den festan. Izan ere, ezjakintasuna gainditu eta elkar ezagutza sustatzeko aukera aparta eskaini nahi

digute festa honen bitartez. Zazpi herrialdeetako ordezkariak bilduko baitira gure herrian.

Ikastolen aldeko festak oso ezagunak zaizkigu baina apirilaren 21eko jaien modukoak gutxi dira. Zazpi herrialdeen erakusleho izango baita "Elkartasuna... etorkizuna" festa. Herrialde bakoitzetik kultura munduan dabilzan hainbat elkarte hurbilduko zaizkigu. Eta bide hori da hain zuzen antolatzaileek garatu nahi dutena: arrotzak egin daitezkeen kultur espresioak bildu herrien arteko harremanak sendotzen has daitezten. Nola? Urruti sentitzen duguna hurbilduz, arrotz zaiguna ezagutaraziz. Baina ez edo nola: festa giroan, herri honen erakusgarri den kultur jarduna plazara ekarriz.

Imanol Ubeda

EGITARAUA

11:30etan- herrialdeetako ordezkariak harrera egingo zaie Udarregi Zaharrean.

12:00etan- ekitaldi nagusiaren hasiera pilotalekuan. Txostenaren irakurketa egingo da. Karmele Galartza irrintzilariak, Ebaristo Pikabea (Usurbil) eta Anjel Antziburu (Luzaide) bertolariek hartuko dute parte.

12:30etan- kalejira herrian barrena: Tuterako Peña Beterriko joaldunak eta gaiteroak, Baigorriko gaiteroak, Miranda de Ebroko eta Usurbilgo txistulariak, Urdañarbeko xirulariak eta dantzariak.

14:30etan- zikero jatea.

17:00etan- herrialde guztietako ordezkariaren txanda.

Zuberoaren aldeko kanpaina aurkeztu berri da

Apirilaren 10ean Udarregi Zaharrean Zuberoa sustatzeko abiatu den kanpaina aurkeztu zen. 17 elkarte bildu ziren eta Nerea Arrutik eman zituen kanpainaren xehetasun guztiak.

Zuberoak bizi duen egoera larriaz kezkatuta, "Xiberoa garatzen! egitasmoa" aurkeztu berri da. Egitasmo honekin bat egin du Euskal Garapen eta Kohesio Fondok. Baina laguntza gehiago

behar dira.

Ekimen honi ahalik eta jarraipen zehatzena egin ahal izateko lan talde sendo bat osatu nahi da herrian. Aurrekoan aipatu genuen bezala, bi helburu nagusi ditu kanpaina honek: auzolangintzaren bidez Zuberoaren aldeko egitasmoa sustatzea eta ekarpen ekonomikoak bideratzea.

Usurbili 250 euroko 35 ekarpen egitea egokitu zaio. Herrian osatu berri den talde honek, besteak beste, apor-



Maule, Zuberoako hiriburua.

tazio horiek lotu beharko ditu. Diru ekarpena aldi batean edota epeka egin daiteke: bost zatitan, 50 euro bi hilabetez behin.

Zinkildegia

Lentzeria,
gizonezkoentzat arropa,
haurren jantziak,
etxerako behar dituzunak

Aritzeta 1 behea,
20170 Usurbil ☎ 943 36 17 87

gorriti
EDARITEGIA

kafe berezia

San Esteban kalea, 8
TLF 36 27 70

20170
USURBIL

P A T R I

J A T E T X E A
Eguneko bazkariak
eta afariak

Nagusia 6, 20170 Usurbil
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)

Imersoko bidaietara joateko eskaera epea apirilaren 30ean amaituko da

Imersoko bidaiak martxan jarri zirenetik asko dira Usurbildik oporretara joan direnak. **2002-2003an berriro joan nahi duenak Gizarte Zerbitzuen departamenduan eskaera-orria bete beharko du apirilaren 30a baino lehen.**

Uztaila, abuztua eta iraila izan ezik, Imersok urte osoko programzioa osatzen du. Oporraldi hauetaz gozatu nahi duenak, ordea, honako baldintza hauek bete behar ditu:

- 65 urte edo gehiago izatea.

-Gizarte Segurantzako jubilatutako pentsioduna izatea.

- Beste motatako pentsioduna izanda ere gutxienez 60 urteak beteak izatea.

-Nor bere buruaz arduratze-ko gauza izatea eta bizikidetzaren baldintzatu dezakeen trastorno psikiko-fisikorik ez izatea.

Izena ematen dutenak asko direnez, zozketa bidez egingo da aukeraketa. Orain arte joan ez direnek eta diru-sarrea bajuak dituztenek lehentasuna izan ohi dute.

Aurtengo eskaintza

- Penintsula edo irla balearrak, 8, 15 eta 22 egunetako txandak.

- Kanaraiar Irlak edo Portugal, 8 egunetako txandak.

- Asturias, 6 egunetako txandak.

- Nekazal-turismoa. 5 egunetako txandak.

Eskera-epea hilaren 30ean amaituko da. Orria betezea ez da nahikoa izango, zorte pittin bat ere beharko da-eta.

Teodoro Aranburu: "lehen bidaiak lortzea errazagoa zen"

Teodoro Aranburu eta Mari Karmen Aierbe duela hamar urte hasi ziren Imersorekin bidaiatzen. Orduetik Mallorkan, Benidormen, Calpen eta Funegirolan izan dira, beraz, ezin dira kexatu. Azken boladan, berriz, Foru Aldundia eta Kutxaren eskutik bidaiatu dute. Garestixeagoa da baina aukera gehiago izaten dela aitortu digu Teodoro Aranburuk.

Ez zarete geldirik egoteko horietakoak, ezta?

Ahal baldin bada, behintzat! Dirua behar izaten da, bidaiak ez da garestia baina gero han ez gara konbentuan sartuta egoten, kalean ibiltzen gara. Hor ere dirua joaten da.

Gero eta gehiago dira eskaera egiten dutenak, ezta?

Lehen errazagoa zen leku bat harrapatzea. Orain eskaerak Madrilerara eramaten dituzte eta han erabakitzen dute.



1994an Calpen ateratako erretratua. Goian eta ezkerretik hasita, Miguel Zugasti, Marcial Goenaga, Teodoro Aranburu eta Luisa Olazabal. Behean, Mari Karmen Aierbe, Natalia Etxeberria eta Calpeko lagun bat.

Aurten bidaiatzeko asmorik ba al duzue?

Ekainean Peñiscolara goaz Diputazioa eta Kutxarekin. Imersokoa baino garestixeagoa da baina lekua lortzea errazagoa da.



TXIRIBOGA
TABERNA

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13

TXURRUT

TABERNA



Giro eta musika atsegina!

San Esteban kalea, 1
Tel.: 943 36 00 80

40 karateka bildu ziren Oiardon egindako azterketetan

Asteartetan eta ostegunetan kiroldegira hurbiltzen direnentzat ohikoa da Koitxi Yaezuraren presentzia. Japoniar honek bere ardurapean ditu karate ikasleak. 94an hasi zen guregana etortzen eta harrezkeror ez du hutsik egin. Japoniar honek eman dizkigu egin berri diren examenen berri.

Apirilaren 15ean karatea izan zen kirol erregea Oiardo kiroldegian. Egun esanguratsua izan baitzen karate ikasleentzat. Usurbilgoekin batera, Donostia, Azpeitia eta Lazkaoko karate ikasleak izan ziren protagonista nagusiak. Urtean lau examin egin behar dituzte eta horietako bat pasa behar izan zuten Oiardoko instalazioetan.

Usurbilgo karate taldea She-Sin-Riu elkarteko kide da. Koitxik



Koitxik 8 urte egin ditu Usurbilen lanean.

azaldu digunez, guztira lau dira urtean pasa behar dituzten frogak: "oinarrizko teknikak neurtzen ditugu eta kata eta kumite frogak ere egiten dizkiegu".

Lehen esan bezala, Koitxiren ardurapean beste herri batzuetako ikasleak ere badira. Apirilaren 15ean denak deitu zituen Oiardora. Guztira 40 lagun bildu ziren examen hauetan.

► Eskolarteko pilota txapelketaren finala, maiatzaren 12an

Andazpe-Peña Pagola eskolarteko txapelketa hasi berria da. Hilabeteko epean egingo dira kanporaketak. Finala, berriz, maiatzaren 12an jokatuko da. Bailarako pilota taldeen arteko txapelketa honetan herriko 54 pilotari parte hartzen ari dira, guztiak 9-14 urte bitartekoak.

Ea finalera iristeko zortea duten.



Bailarako eskolarteko kanporaketak martxan dira.

Buruntzaldeko kiroldegiek prezioak bateratu dituzte

Andoain, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo kiroldegiak prezio bateratuak eskaintzen hasi dira: sarrera 18 urte azpikoentzat, 3,6 euro. 18 urte behekoentzat, berriz, 2,2 euro.

Abonoak ere badira eta tarteka kiroldegira hurbiltzeko aukera duenari urte osoko txartela merkeago aterako zaio. 18 urtez gorakoentzat urteko abonoa 95 eurokoa

da. 18 urte azpikoentzat, 60 euro. Baina bada txartel familiarra, 145 euroko prezioa duena eta sendi osoko kideentzat baliogarri dena. Aukerara 6 hilabeteko abonoak edo txartelak ere eros daitezke.

Gogoan izan prezio berean Andoain, Hernani, Lasarte-Oria eta Urnietako kiroldegietan sar gaitzkeela, alegia.



Buruntzaldeko kiroldegietan prezioak bezalaxe hainbat eskaintza ere bateratuta daude.

TABERNA-JATETXEA



ANTXETA

EGUZKITZA, 4
20.170 USURBIL

TEL: 943 37 03 44



Bakartxo Iguaran



❑ Bibliotekako laguntzailea.

❑ 33 urte.

Apirilaren 23an Liburuaren Nazioarteko Eguna dela eta

Kuriosidade batekin hasiko dut idatzi hau. Izan ere, Apirilaren 23an, San Jorge eguna izateaz gain, William Shakespeare jaio zen (1564. urtean), eta 1616. urteko egun berean hil ziren aipaturiko hau bera eta Miguel de Cervantes. Arrazoi horiek aitzakitza harturik, 1995. urtean, Unescok Liburuaren Eguna izendatu zuen egun seinatu hau. Ezin ahaztu gainera, Katalunian egun haundi bat dela, eta larrosak eta liburuak oparitzen ospatzen dutela.

Baina gatozen dagokigunera: liburuak, eta gaurko honetan zehatzago, liburuen irakurketa. Nik liburutegiaren ikuspegitik hitzegingo dut, irakurketa aisialdiarekin lotuz eta zauden tokitik mugitu gabe mundu guztian zehar bidaiatzeko modurik eroso eta merkeena denaren sinismenetik (norbera eta inguruari buruz ikasten dena ahaztu gabe), eta batez ere, irakurtzearen plazerra aldarrikatuz.

Irakurri "behar" dugu, gure seme-alabek irakurri egin

"behar" dute? Guraso eta irakasle askoren ahotan dago kezka hori, eta askotan hitzegiten dugu hortaz. Lehen aipatu dugun ikuspuntuaren arabera, gure ustez, irakurtzera gonbidatu egin behar da: txikitatik haurrak liburutegira ekarriz, exenplua emanez (zergatik ez?); bai haur eta bai helduen kasuan, pixkanaka hasiz eta irakurketak adina eta gustuei egokitu.

Irakurtzeko zaletasuna duenak, bizi eta transmititu egiten du. Eta horrela ez bada, mundua bukatuko ote da?



Azkenik, Usurbilgo Udal Bibliotekatik, guztiok gonbidatzea gelditzen zaigu: gure atea zabalik daude haur, gazte eta helduentzat. Liburu, aldizkari, egunkari eta ikusentzunezkoen eskaintza zabaldu dugu; Internet zerbitzua, lan eskaintzak... . Bertara inguratzeko aitzakia polita duzue Apirilaren 23an. Gainera, Pello Añorga izango dugu ipuin kontari arratsaldeko 18:00etatik aurrera, eta bestelako sorpresarik ere ez da faltako.

Zatoz!

Lehiaketa



Argazkian ageri diren pertsonen izenak eta bi abizenak nahi ditugu. Ba al dakizkizu?

Saria:

Afari bat bi laguntzat Antxeta Jatetxean

1968ko uztailak 2. Urdaigako ur-depositoaren inaugurazioa. Udal fototeka.

133. aleko erantzuna



Aurreko zenbakian honako hau galdetu genuen:

Zer objektu da honako irudian zatitua agertzen dena?

Erantzun egokia:

Itzalgailua


Irabazlea

Ez dugu gutunik jaso.

Saria

Imanol Murua eta Humberto Unzueta-ren "Suetena Belfasten" liburua.

Gurutzagrama



Kalean gora, kalean behera...

Aurkitu beharreko hitza bakoitza letra bat gehiago edo gutxiago duen aurreko edo ondorengo hitzaren anagrama da.

1. Usurbilgo auzorik altuena.
2. Joxe Martin Sagardia halaxe izan zen.
3. Oparoa, asko, franko.
4. Aldi, sasoi, une.
5. Usurbilen argitaratzen den egunkari bakarra.
6. Erretzen ari den zerbaitetik altxatzen den gas masa argitsu.
7. Garbi, garden, klaru.
8. Ikusgai dena, ezkutuan ez dena.
9. Zerbait egitera bultzatu, eginarazi.
10. Jainkoaren inguruan, beraren zerbitzuan dabilzan izpiritu huts.
11. Eguneroko berri-aldizkari.

Herrian angulen hiria

a b c d e f g

Herrian angulen hitza: **AGINAGA**.

1. Urdaigako, 2. Gudarria, 3. Ugartia, 4. Gortia, 5. Gara, 6. Gort, 7. Argi, 8. Ageri, 9. Egin, 10. Angurua, 11. Egunkari.

Soluzioa:

APIRILAK 20 larunbata

- Luis Zabalak "Galdu arte" liburua aurkeztuko du Udaregi Zaharrean. UGAK antolatutako hitzaldia, 18:00etan hasita.

APIRILAK 21 igandea

- "Elkartasuna... etorkizuna" izeneko festa Usurbilen. 14:30etan zikro jatea. Txartelak salgai ostirala bitarte Txiribogan, Aitzagan eta Bentan.

APIRILAK 23 asteartea

- Pello Añorga ipuin kontalaria 18:00etan Udal Bibliotekan.

MAIATZAK 1 asteazkena

- Langileen Eguna.

GARAJEAK

- 🔧 Munalurran garaje bateko marra salgai. Telf. 943 362424
- 🔧 Motoak sartzeko lokala alokatzen da. Gazteentzako txoko bat alokatzen da. Telf. 656 759 583.
- 🔧 Yamaha XJ 600 motoa salgai. 225.000 pezeta. Telf. 943 366222.
- 🔧 Garaje itxia salgai Etxealdian. 943 373185 telefonora deitu.
- 🔧 Garaje itxia salgai Etxealdian. Interesatuak deitu 943 373185 telefonora.
- 🔧 Galtzaragaina elkartean bi garaje itxi daude salgai. 943 360 273, Javier.
- 🔧 Garaje itxia salgai Etxe-zurian (herri sarreran). Tarteko oina eta ate automatikoak ditu. Prezio onean; 2.200.000 pzta. Telf: 687 40 62 09
- 🔧 Galtzaragainan 20 m2-ko garaje itxi bat salgai. Berritua, oso txukuna. Goiko pisuan. 678 81 52 77 (arratsez).

ETXEBIZITZAK

- 🔧 Etxe bat alokatuko nuke. Beste batekin konparitzeko prest nago. 626 680 915.
- 🔧 Usurbilen pisu bat osatzeko jende bila nabil. Deitu 943 793147 edo 617788538 telefonoetara.
- 🔧 Alokairuan dagoen pisua edo apartamendua hartuko nuke. Telf. 943 364469
- 🔧 Baju edo ganbara bat erosiko nuke. Telefono zenbakia: 943 36 02 13. Deitu iluntzean.
- 🔧 Usurbilen gela baten bila nabil, lo egiteko bakarrik. Lekurik baduzu deiiezadazu telefono zenbaki honetara: 653 011 842.

LAN-ESKAERAK

- 🔧 Neska bat eskaintzen da haurrak zaintzeko. 943 366485.
- 🔧 Emakume bat eskaintzen da astean hiru egunetan, goizez lau edo bost orduz lan egiteko. 943 36 43 10.
- 🔧 Pertsona bat eskaintzen da haurrak zaintzeko gauzez. 943 371447 (Belen).
- 🔧 Emakume bat eskaintzen da, goizeko 9:00etatik eta 14:00etara ostalaritza edo etxeko lanetarako, derrigorrezkoa da gizarte segurantzaz. Interesatuak deitu 943 36 43 40 telefonora.
- 🔧 Pertsona bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, umeak zaintzeko edota 3. adinako pertsonak zaintzeko. ITelf: 647 220 966.

LAN-ESKAINZAK

- 🔧 Udaregi ikastolan eskola kiroleko monitorea behar dira. Deitu 943361216 edo 943370645 telefonotara.

BESTELAKOAK

- 🔧 Matrimonio-gela bat saltzen dut: armarloa, kabezala eta bi mesanotxe. 943 36 43 35.
- 🔧 Edozein ohetarako balio duen erabili gabe dagoen trapezio bat salgai. Deitu 943 835441 telefonora (Begoña).
- 🔧 Fagor markako frigorifiko bat saltzen dut. 5 urte ditu baina berria dago. Interesatuak deitu 943 36 69 95 telefono zenbakira (Inma).
- 🔧 Belarritako bat galdu dut, urrezkoa eta perlitua bat du. Bilatzen duenak deitu dezala 943 362 088 telefono zenbakira.
- 🔧 Erloju bat ekarri dute Noaualra. Beraz, norbaitek bere erlojua galdu badu, etorri gure egoitzara, ea hemen daukaguna den ikustera.
- 🔧 Bigarren eskuko soinu txikia erosiko nuke, 120 bajukoa. Telefonoa: 943 37 03 59.
- 🔧 Opel Corsa bat salgai, SS-AL. 300.000 pezetan, kuota eta transferentzia barne. 943 37 26 92.
- 🔧 Ford Escort Ghia TD familiarra salgai. SS-BB, CD ekipoduna. Telefonoak: 657 796 777 / 943 37 19 54.
- 🔧 Wolswagen Santana bat saltzen dut. Telefonoa: 670 987 921 (Jon).
- 🔧 Martxoaren azken larunbatean erloju digital bat galdu nuen. Beltz kolorekoa da. Topatu baduzu deitu 943 37 33 36 telefono zenbakira.

KIROL DEIAK

Apirilak 20/21

FUTBOLA

Zarautz - **Usurbil FT**
(Eskualde Maila, E)

ESKUBALOIA

Usurbil KE - Aloña Mendi
(2. Nazionala, G)
Gaur Elgoibar - **Usurbil KE**
(Jubenilak, G)

ARETO-FUTBOLA

Lugaritz - **Txotx**
Antxeta - Peio Arraindegia
(Bigarren Maila B, G)
Aitzaga - Salwsiarrak
(Jubenilak, E)

Apirilak 27/28

FUTBOLA

Usurbil FT - Alde Zaharra
(Eskualde Maila, E)

ESKUBALOIA

Urnietako - **Usurbil KE**
(2. Nazionala, G)
Usurbil KE - Arrate
(Jubenilak, G)

ARETO-FUTBOLA

Txotx, atsedena
Martu Kirol - **Antxeta**
Peio Arraindegia - Lugaritz
(Bigarren Maila B, G)

* **G**: Gizonezkoak / **E**: Emakumezkoak.

KIROL EMAITZAK

Apirilak 6/7

ESKUBALOIA

UPV/EHU 30- **Usurbil KE 19**
(2. Nazionala, G)

ARETO-FUTBOLA

Txotx 4 - Inter Intxaurren 2
Larramendi C 8 - **Antxeta 0**
Ataun 7 - **Peio Arraindegia 3**
(Bigarren Maila B, G)



txeko berri

Lehendakari eta egitasmo berriak estreinatuko ditu Noaua!k aurten

Noaua! Kultur elkarteak urteroko Batzar Orokorra egin zuen pasa den apirilaren 6an. Bazkideei urteko gorabeheren berri eman eta 2002. urtarako plangintza aurkeztu zitzairen. Azken urteetako maldan beherako bideari jarraituz, ez zen bazkide ugari bildu udaleko pleno aretoan. Izan ere, 525 bazkideetatik 20 lagun besterik ez baitzen agertu.

Agertu edo ez agertu, bertan ziren bazkideek iazko balantzea eta 2002ko egitasmoak ahobatez onartu zituzten.

Aldizkariari dagokionez, bi egitasmo nagusi daude aurtengorako; batetik, irailean Noaua! aldizkaria diseinu berriarekin kaleratuko dugu.



Goitik beherako aldaketa izango du hamabostero-hamabostero etxean jasotzen duzun aldizkariak. Eta, bestetik, aldizkaria interneten jarriko dugu. Beraz, hemendik gutxira Noaua! interneten irakurtzeko aukera izango duzue.

Kultur Elkartearen jarduerari dagokionez, hiru izango dira

aurtengo egitasmo nagusiak: Noaua!ren webgunea sortzea; Usurbilgo 180 base-riren azterketa etnografikoa eta soziologikoa jasoko duen liburua argitaratzea; eta, azkenik, bazkideetza arloan urrats berriak ematea.

Bestalde, Udal argazkien antolaketa eta digitalizazio lanarekin jarraitzeko asmoa du Elkarteak. Egitasmo hauek guztiak gauzatu ahal izateko, 18 milioiko aurrekontuari egin beharko diogu aurre.

Bukatzeko, orain arteko lehendakari Andoni Sagarnak, sei urte eta gero elkartean egon ostean, kargua utzi du eta lekukoa Saloa Fernandezek hartu du. Ongi etorri!



HEMEN DA EUSKAL HERRIKO NAZIOTASUN AITORMENA

Mundu zabalean herri askeek egiten duten bezala, euskaldunok ere gure naziotasuna aitortu nahi dugu.

Herri guztiak dute erabakiak askatasunez hartzeko eskubidea eta beren egitura politikoa eta beren ekonomia, gizartea eta kultura askatasunez garatzeko. Gizaki guztiak naziotasuna izateko eskubidea dute. Inori ezin zaio naziotasuna ukatu edo naziotasuna aldatzeko eskubidea kendu. Euskal herritarrak garen heinean naturaltasun guztiarekin garena aitortu nahi dugu munduaren aurrean.

Euskal Herriko Udal eta Udal Hautetsian Biltzarrak - UDALBILTZAK - Batzar Orokorrean Euskal Herriko Naziotasun Aitormena bideratzeko konpromisoa hartu zuen.

Herritarrek beren naziotasuna aitortu dezaten, Udalbiltzak Euskal Herriko Naziotasunaren Aitormena egiteko inprimakiak Bai Euskal Herriari taldearen esku jarri ditu jadanik.

Bai Euskal Herriari Taldean LARENBATERO GOIZKO 11:00etatik 14:00etara UDAL PLAZAN ARETOAN BUONGO DA EDUZEIN ZALANTZA HERRITARREI ARUITZEKO

KARNETA EGITEKO AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

Errolda agiria, 3 argazki eta ordain agiria

HEMEN DA

EUSKAL HERRIKO NAZIOTASUN AITORMENA



Oporretara EGUNKARIArekin!

Pentsatu al duzu nora joan nahi duzun?



Motxila dotore hau opari

Jasotzen ditugun lehen 200 plantillen bidaltzaileei motxila dotore hau opari egingo diegu.

ASTORE



Munduaz gozatzeko

Apirilaren 21etik aurrera erosi EGUNKARIA. Mundua ezagutzera gonbidatuko zaitugu!

Babeslea:

